

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****Erriberako kantina ustiatzeko emakida kontratuaren oinarriak.**

Udal honek hurrengo Pleguak onartu dituela jakinarazten da:

1. *Erakunde esleipen emalea*
 - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
 - b) Espedientearen izapidetzailea: Zerbitzu Saila.
 - c) Espediente zenbakia: ZE8-IV-31.
2. *Kontratuaren xedea*
 - a) Mota: Emakida kontratua.
 - b) Xedea: Erriberako kantina ustiatzeko kontratua.
 - c) Zerbitzuaren ezaugarriak: Baldintza teknikoetan zehazten direnak.
 - d) Exekuzio/entrega lekua: Bermeoko Udala.
 - e) Burutzeko epea: bi urteko iraupena izango du, esleipena egiten den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori gairiduta urtero luzatu ahal izango da gehienez lau urte bete arte (2+2). Luzapen horiek kontratuaren parte-hartzaileek adostu behar dute jatorrizko epea amaitu baino lehen.
 - f) CPV (nomenklatura erreferentzia): 55510000-8.
3. *Tramitazioa, eta prozedura*
 - a) Tramitazioa: Ohikoa.
 - b) Prozedura: Irekia.
4. *Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua*

Kontratuaren prezioa, lehenengo urterako 3.000 euro izango da gutxienez. Esleipenduna behartuta egongo da Bermeoko Udalarik hileroko ondoko kanona ordaintzera gutxienez 250 euro. Lizitatuak kanon hau hobetu ahal izango dute. Kanon hori esleipena formalizatu eta hurrengo hilabetearen lehenengo lanegunetik hasiko da ordaintzen.

Prezioak urtero berraztertuko dira
5. *Bermeak*
 - a) Behin-behineko bermea: Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.
 - b) Behin-betiko bermea: 600 euro.
6. *Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea*
 - a) Erakundea: Bermeoko Udala (Berhaz).
 - b) Helbidea: Ertzilla kalea, 6-8.
 - c) Herria eta posta kodea: Bermeo-48370.
 - d) Telefonoa: 946 179 100.
 - e) Faxe: 946 882 312.
 - f) E-Mail-a: berhaz@bermeo.eus.
 - g) Dokumentuak eta argibideak lortzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko azken eguna.

**7. Proposamenen aurkezpena**

- a) Proposamenak aurkezteko epea: 15 egun lizitazio iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b) Lekua: BERH@Z Bulegoa, Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo.
- c) Orduak: Astelehenetik ostiralera 08:30-14:30. Astearteetan eta ostegunetan 16:30-19:00. Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa. Larunbatetan 10:00-13:00.
- d) Aurkezteko beharrezko dokumentazioa: Administrazio baldintza zehatzen orrietan zehazten dena.

8. Esleipena

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean.

Prezioaz gainera irizpide desberdinak baloratzen direnez, esleipena 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

9. Esleipen irizpideak

1. Eskaintza ekonomikoa, 60 puntu arte:
2. Balio-judizioetan oinarritutako irizpideak, 40 puntu arte:
 - Zerbitzua ustiatzeko proiektua, 25 puntu arte.
 - Bertoko produktuak eskaintzea edo eskaintza berritzailea proposatzea, 10 puntu arte.
 - Kontratuaren objektu diren espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa, hondakinen kudeaketa sistema, 5 puntu arte.

Bermeon, 2017ko apirilaren 3an. — Alkatea